

Paperezko espazio aldatuak



Papera izango da gure sormenezko materiala. Euskarri gisa ematen zaion erabileratik harago, eskaintzen dituen aukera estetiko-plastikoekin esperimentatu, eta instalazioak, espazioak edo objektu aldatuak sortuko ditugu.

Helburuak

- Elvira Palazuelosen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Obren analisiaren eta esperimentazio-ariketen bidez, lerro, plano, bolumen eta espazioaren kontzeptuetara hurbiltzea.
- Papera bezalako material sinple bati balioa eta erabilera berriak ematea, hura baliatuta esperientzia sortzaileak biziz.
- Sortzeko teknika eta estrategia garaikideekin esperimentatzea, bakarka eta taldean.

Aipamenak

Elvira Palazuelos | Dibujo

Marit Roland: <https://maritroland.wordpress.com/upcoming-exhibitions/>

Mia Pealman: https://miapearlman.com/CUT_PAPER/cut_paper.htm

Sakir Gökcebag: <https://sakirgokcebag.com/installations/nggallery/installations/trans-layers-1>

Paperezko instalazioak Siphonarekin: <https://fedrigoniclub.com/seleccion/instalaciones-de-papel-con-siphon-mabona/>

PROPOSAMENAREN GARAPENA

Aurkezpena

1. Elviraren hainbat marrazki hedatu ikusiko ditugu: La ciudad plegable (Hiri tolesgarria), Cascada del cubo (Kuboaren ur-jauzia), Historia de un dibujo (Marrazki baten istorioa), Sites in Between eta Fuensanta proiektuetako obrak.
 - Galderen bidez, erreparatu egingo diegu erabiltzen dituen materialei eta haiek erabiltzeko moduari. Lerroa, plano, bolumena eta espazioa bezalako kontzeptuak azpimarratuko ditugu.
2. Ariketa azkar bat egingo dugu planotik bolumenera nola igaro ikusteko. Banaka, folio bat eta arkatz bat erabiliz, hiru dimentsioko tresna bat sortuko dugu. Hasi aurretik pentsatuko dugu: Zer egin daiteke folio batekin? Zer egin daiteke arkatz batekin? Egindako eskulturari izenburu bat jarriko diogu, guri buruzko zerbait kontatzen ahaleginduz, eta emaitzak guztion artean partekatuko ditugu, aniztasuna azpimarratuz.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Paperari buruz ikertu eta hausnartuko dugu, gure inguruan oso presente dagoen eguneroko material gisa: Zenbat paper mota daude gure eskolan? Eta gure etxean? Zertarako erabiltzen dugu horietako bakoitza? Zer nolako esperientziak ditugu bakoitzarekin? Zer ezaugarri dituzte?
 - Paper mota desberdinak ekarriko ditugu ikasgelara (gure etxeakoak, ikastetxeakoak) eta motaren arabera antolatuko ditugu, tailerren moduko txokoetan.
 - Banan-banan aztertuko ditugu: ezaugarri fisiko/estetikoak; erlazonatutako ekintzak (ebakitzea, tolestea, urratzea, zimurtzea, biltzea, etab.); oroitzen diren dizkiguten esperientziak, etab.
2. Gogoan izango ditugu Elviraren lana, egindako lehen ariketa, ikertutakoa eta aztertutakoa, eta eztabaida eta ideia-jasa hasiko ditugu, esperimentatzeko ildo posibleak aurkitzeko. Jarduera honetan laguntzeko, honelako galderak edo erronkak planteatu daitezke hasieran:
 - Nola egin genezake eskultura exentu bat komunezko paperezko biribilkiak, folioak, paper

jarraitua, paperezko bilgarriak, kartoiak eta abar soilik erabiliz?

- Nola irudika genezake hiru dimentsioko paisaia bat X papera erabiliz?
 - Nola eralda genezake izkina bat X papera baino ez erabiliz?
 - Nola alda genezake mahai baten erabilera eta itxura X papera erabiliz?
 - Nola alda genezake gure ikasgela hautemateko modua X papera erabiliz? (Esperimentazio-prozesuetan lerroa sartu nahi izanez gero, koloretako karrozero-zintak gehi ditzakegu aipatutako edozein proposamenetan.)
- Papera funtsezko gaitzat duten beste artista garaikide batzuen lanak ikustea eta aztertzea ere lagungarria izan daiteke (ikus aipamenak).
3. 3 edo 4 pertsonako taldeetan, lan egiteko paper mota bat eta eskolako espazio edo objektu bat aukeratuko ditugu. Azken batean, ideia-jasatik ateratako lan ildoetako bat izan daiteke. Hautatutako paperarekin esperimentatzean datza jarduera: teknika edo ekintza bat edo batzuk probatuz, espazio, objektu edo altzari hori erabileran, forman edo estetikan aldatzea.
 4. Itxura formalari mugatzen ez zaion izenburu bat adostuko dugu, eta saiatuko gara begi-bistan dagoenetik harago dagoen kontakizun bat edo «zerbait» gogora ekartzen, kontakizun edo iradokitzen.

Ondorioa eta lerro irekiak

1. Gure sorkuntzen izenburutik abiatuta, kontakizun laburrak idatziko ditugu: espazio/objektu aldatuetan bizi edo haiek erabil ditzaketan pertsonaia pentsatuko dugu, itxura hori izatera nola iritsi diren... Paper mota zehatz bat aukeratuko dugu euskarri gisa, eta ohiko erabilera emango diogu berriro. Era berean, hainbat eszena, pertsonaia eta abar marraz ditzakegu, eta irudi gisa sartu kontakizunean.
2. Nola egiten da papera? Prozedura horren inguruan ikertu eta geure papera sortu.
3. Bi horiek proposamen bakarrean batu daitezke.